

## ARGIA SARIAK 2010

### Internet

Esaera zaharrak argi dio: "Amuarrainak begi bi, sei ezkailuk hamabi".

2010eko INTERNET alorreko ARGIA sariarekin elkarlana, informazioa eta berrikuntza uztartu dituen ekimen bat saritu nahi dugu.

Baliabide handiegirik eduki gabe, baina konpromiso handiarekin hedabide nagusiek eman ez zuten informazioa eskaini duen proiektu parte-hartzaile bat.

Euskal Herriko zazpi bazterretatik nor bere ordenagailua, mugikorra eta kamera erabilia ekimen honetako partaideek iazko mobilizazio garrantzitsuenetako baten berri eman zuten sare sozialak erabiliz, baita zuzeneko bideo emisioak ere.

Internetek informazio alternatiborako eskaintzen dituen aukera berriak noraino iristen diren erakusteagatik 2010ko INTERNETEKO ARGIA SARIA **GREBAOROKORRA.INFO** webgunearentzat da.

Etor daitezela saria jasotzera Galder Gonzalez, Fakun Aznarez eta Nagore Vega ekimenaren antolatzaileak. Zorionak!

### Prentsa Idatzia

2010.eko PRENTSAko ARGIA SARIA irabazi duen pertsona aski ezaguna da euskal irakurlearentzat gazte-gaztetatik hasi baitzen euskarazko agerkari ugaritan idazten baita zeresana ematen ere.

Prentsan ez ezik, literaturan ibilbide luzea egindakoa da duela gutxi Durangoko Azokan aurkeztu zuen orain arte idatzi duen azken liburua.

Egunero irakurtzen ditugu bere iritziak. Berrian luma zorrotzez idazten dituen zutabeetan.

Erreferentzia originalak eskaintzen dizkio irakurleari eta oso modu askean idazten du idatzi ahala hizkuntza birsortuz.

Eguneroko albiste jarioari ikuspuntu pertsonalez begiratzen dio bira ematen dio gaurkotasunari.

Horrengatik guztiagatiketa beste hamaika arrazoiengatik PRENTSAko 2010eko ARGIA SARIA eman diogu **Itxaro Bordari**.

### Publizitatea

Batzuetan, leku batetik bestera joateko modurik onena mapan lerro zuzena egitea da lerro horrek erakusten duelako biderik laburrena, biderik onena.

Bide hori, laburra, ona, hartu ezinda ibiltzen da jende asko herri honetan luzamendutan, lanak geroke utziz seguruenik, pentsatzen dutelako laburra dirudiena nekoso, zaila eta ibili ezina dela.

Aurtengo PUBLIZITATE alorreko ARGIA saria nori eman erabakitzen ari ginela kanpaina bat oso deigarria egin zitzaigun hain zuzen ere, lotzen zuelako euskara ikastea bide laburraren ideiarekin eta, bide batez osasunarekin, maitasunarekin eta lanarekin.

Gainera, asmatu dute mezua umorez ematen eta estetika koloretsuz janzten.

Arrazoi horiengatik, 2010eko ARGIA SARIA merezi du. Publizitate Atalean “**AEK euskara ikasteko biderik laburrena**” 2009ko AEKren matrikulazio kanpainak.

Betor saria jasotzera Mertxe Mujika, AEKko ordezkaria. Zorionak!

### **Telebista**

Kontu jakina da komunikazioaren mundua geroz eta obsesionatuagoa dagoela abiadurarekin informazioa azkar ematearekin batzuetan presaka.

Horregatik, telebista jartzen duzunean eta aurkitzen duzunean su bajaran, kariñoz eta behar den denbora hartuta egindako lan bat arreta deitzen dizu.

Modu horretara egindako lana saritu nahi dugu aurtengo TELEBISTAKo ARGIA SARIArekin.

Saridunak, 2009an euskaraz ikasi dutenen bidaia intimoak kontatu ditu eta Ez Dok Amairuren historian murgildu da bi dokumental hunkigarritan.

Lan horiek, momentua gainditzen dute eta euskal kulturaren transmisiorako tresna izango dira urteek aurrera egin ahala.

Aurtengo TELEBISTAKo ARGIA Sariaren irabazlea da **Eriz Zapirain**, “Zai Zoi Bele” dokumentala zuzentzeagatik.

### **Irratia**

Ez da brometako IRRATIko ARGIA SARIA irabazi duen kazetariak 2009an egin duen lana.

Arratsaldero, ingelesak tea hartzen ari ziren orduan berak dilijentzia bat gidatu du Euskal Herri salbaje honetako lur arriskutsuetan.

Horrekin konformatzen ez, eta Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia jarraitu du saioz saio, astebururo, zuzenean eta zertaz hitz egiten duen badakiela erakutsiz.

Ez da broma, ez, IRRATIko ARGIA SARIA irabazi duen kazetariak egin duen lana.

Eta, hala ere, ez ditu behin ere bromak alde batera utzi lan horiek guztiak egin bitartean.

Entzuleak ezagutzen ditu haren elkarrizketa umoretsuak hitz jokoak, txisteak eta ateraldiak.

Irratigintza fresko, ausart eta probokatzaileria jarri du praktikan saridunak eta gonbidatu gogorrenak ere errenditu ditu, daukan komunikazio gaitasunarekin.


2010eko ARGIA SARIA merezi du IRRATIko atalean Info 7 irratian “5etako dilijentzia” programa eta Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren jarraipena egin duen **Agin Rezolak**.

### **Merezimenduzkoa**

Aurten MEREZIMENDUZKO ARGIA SARIA jasoko dutenek 25 urte daramatzate euskaldun guztion etxeetan.

Geratzeko sartu ziren gure egongelan.

Beraien kanta, broma eta bihurrikieriekin hazi dira orain guraso diren asko eta asko. Eta haurren ondoan ikusten dute txikitako irribarre berarekin hirukote honen programa.



Telebista egiten asmatu zuten, oraindik inork nola egin ez zekienean eta geroztik, unean unekoa egiten jakin dute garaietara ederki egokitu dira.

Horregatik betetzen dira leporaino aretoak beraien ikuskizunekin.

Eta nahikoa esan dut. Honezkero, denok dakizue nori buruz ari naizen eta beldur naiz, tranpetan ari naizela salatzeko saridunak ez ote zaizkidan altxako "Txutxupe!" oihuka.

Beraz, besterik gabe, esan dezadan aurtengo MEREZIMENDUZKO ARGIA SARIA **Txirri, Mirri eta Txiribitonentzat** dela.

Etor daitezela Xabier Otaegi, Piter Ansorena eta Txema Vitoria. Zorionak!